Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko azaroaren 3a, asteartea — 210 — Martes, a 3 de noviembre de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## BEASAINGO UDALA

*Alkatearen ebazpena. Diru-zaintzako funtsak erabiltzeko plana.*

Ikusirik Diruzainaren 2020ko urriaren 20ko txosten-proposamena, diruzaintzako funtsak erabiltzeko plan bat ezartzeari buruzkoa.

Ikusirik diru-zaintza eta diru-bilketako Funtzioak arautzen dituen gaikuntza nazionaleko tokiko administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzeko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuko 5.b.1) artikulua.

1. Diru-zaintzaren zereginetan sartzen dira:

a) Diru-zaintzaren zereginetan sartzen dira: Tokiko Erakundeari dagokion organoaren titulartasuna eta zuzendaritza.

b) Tokiko Erakundearen funtsak, balioak eta gaiak erabili eta zaintzea, indarreko legezko xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz eta, zehazki:

1) Diru-zaintzako plan, egutegi eta aurrekontuak eratzea, Erakundeak erabilgarri duen dirua denboran banatuz bere betebeharrak unean-unean asetzeko, legez ezarritako lehentasunei so, Korporazioak hartutako akordioekin bat etorriz, hornitzaileei ordainketa egiteari buruzko informazioa barneratuko dutenak, araudian berankortasunaren inguruan ezartzen den gehienezko epea betetzea bermatze aldera.

Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 14. artikuluan eta 1978ko Espainiako Konstituzioko 135.3. artikuluan erreparatuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 41.7. artikuluan eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bategina onartzeko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuko 168. artikulua eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legeko (Aurrekontu Erregelamendua) Seigarren Tituluko Lehen Kapitulua garatzeko apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 65. artikulua xedatzekoak, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzeari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko (11/99 Legeak aldatua) 21.1.f) artikuluan ezarritako eskudantzia erabiliz, arau bereko aipatu 168. artikuluari dagokionez:

Alkatetza honek

EBAZTEN DU

*Lehena:* Onartzea hurrengo Diru-zaintzako funtsak erabiltzeko plana.

*1. Aplikaziorako arau orokorrak.*

Lehena.

Funtsak Erabiltzeko Planaren helburua ordainketak denboran egoki banatzea, diru-zaintzan aurreikusitako eskudiruzko erabileretara doituz, uneoro Udalaren zorduntze premiak aintzatesteko moduan.

## AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

*Resolución de Alcaldía. Plan de disposición de fondos de Tesorería.*

Visto el informe-propuesta de la Tesorera de fecha 20 de octubre de 2020, sobre establecimiento de un Plan de Disposición de Fondos de Tesorería.

Visto el artículo 5.b.1) del Real Decreto 128/2018 de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración local con habilitación nacional que regula las Funciones de tesorería y recaudación.

1. La función de Tesorería comprende:

a) La titularidad y dirección del órgano correspondiente de la Entidad Local.

b) El manejo y custodia de fondos, valores y efectos de la Entidad Local, de conformidad con lo establecido en las disposiciones legales vigentes y, en particular:

1) La formación de los planes, calendarios y presupuestos de Tesorería, distribuyendo en el tiempo las disposiciones dinerarias de la Entidad para la puntual satisfacción de sus obligaciones, atendiendo a las prioridades legalmente establecidas, conforme a los acuerdos adoptados por la Corporación, que incluirán información relativa a la previsión de pago a proveedores de forma que se garantice el cumplimiento del plazo máximo que fija la normativa sobre morosidad.

Atendiendo el artículo 14 de la Lay Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, y el artículo 135.3 de la Constitución Española de 1978, que modifican lo dispuesto en el artículo 41.7 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el artículo 168 de Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales y artículo 65 del Real Decreto 500/1990, de 20 de abril, por el que se desarrolla el Capítulo Primero del Título Sexto de la LRHL (Reglamento Presupuestario) es por lo que haciendo uso de las atribuciones que establecidas por el artículo 21.1.f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local (modificada por la Ley 11/99), en relación con el citado artículo 168 de las misma norma:

Esta Alcaldía

RESUELVE

*Primero:* Aprobar el siguiente Plan de disposición de Fondos de Tesorería.

*1. Normas generales de aplicación.*

Primera.

El Plan de Disposición de Fondos persigue la finalidad de conseguir una adecuada distribución en el tiempo de los pagos ajustándolos a las disponibilidades de efectivo previstas en la tesorería, de forma que se puedan apreciar las necesidades de endeudamiento del Ayuntamiento en cada momento.

EK\CV GAO-I-2020-05507

Bigarrena.

Diru-zaintza osatzen duten funtsak kaxa bakarraren printzipioari jarraituz kudeatuko dira, aurrekontukoak diren zein aurrekontukoak ez diren eragiketen ondorioz sortutako funts eta balio guztiak zentralizatuz, Udal Diru-zaintzari bere betebeharrak ordaintzeko erabilgarri dituen diruzko baliabide guztiak erabil ditzala aginduz.

Hirugarrena.

Funtsak Erabiltzeko Plana Diru-zaintzako Planean oinarritzen da.

Laugarrena.

Funtsak Erabiltzeko Plana berrikusi egin ahalko da Diru-zaintzan gauzatu edo aurreikusitako erabilera likidoetan izandako aldaketen arabera.

Bosgarrena.

Agindutako ordainketen zenbatekoa Funtsak Erabiltzeko Plan honetan xedatzen dena izango da.

Seigarrena.

Funtsak Erabiltzeko Plan hau Beasaingo Udalean aplikatuko da.

Zazpigarrena.

Korporazioko Diru-zaintzaren ardura izango da ordainketa-aginduak egiteko zordunketako kontu korrontea zehaztea, diru-zaintzaren errentagarritasun handieneko eta Kudeaketaren eraginkortasunaren irizpideak kontuan izanik.

2. *Lehentasun-hurrenkera.*

Diru-zaintzan erabilerekin, egiazkoak edo estimatuak, indarraldia amaitutako eta ordainketen egikaritze materialean eskagarri diren betebehar guztiak asetzea ezinezkoa denean, lehentasun hauek ezartzen dira:

A) Erabilera arruntak:

1. Zor Publikoa. Erakundearen finantza arloko kargari dagozkion funtsen erabilerak, gastuen aurrekontuko 3. eta 9. kapituluetan agertzen direnak, Udalaren eta finantza-entitate ezberdinen artean adostuta dauden kreditu eta maileguak amortizatzeko koadroetan ezarritako indarraldien araberakoak izango dira.

2. Ordainketa likidoak langileei. Gastuen Egoerari buruzko 1. kapituluan ezarritako kredituak erabiliko dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 8. artikuluan aurreikusitako langileen ordainketei buruzkoak, honakoak sartzen direlarik:

«1.— Enplegatu publiko dira interes orokorren zerbitzura Herri Administrazioetan ordainketa funtzioak betetzen dituztenak.

2.— Enplegatu publikoak horrela sailkatzen dira:

a) Karrerako funtzionarioak.

b) Bitarteko funtzionarioak.

c) Laneko langileak, finkoak, denbora mugagabekoak edo aldi baterakoak.

d) Aldi baterako langileak.»

Eta lehentasun-hurrenkera honen arabera:

a) Hilero, korporazioko lanpostu bakoitzeko dagokion nominan islatzen diren oinarrizko ordainketa edota ordainketa osagarrien zenbateko likidoaren arabera, eta aparteko ordainsariak hala dagokionean.

b) Hilero, Gizarte Segurantzara egindako ordainketena, eta Zerga arloko Atxikipenei dagozkienak, eskumeneko organismo publikoek onartutako egutegi ofizialekin bat etorriz.

Segunda.

La gestión de los fondos que integran la tesorería se realizará bajo el principio de unidad de caja con la centralización de todos los fondos y valores generados por operaciones presupuestarias y no presupuestarias, ordenándose a la Tesorería Municipal que utilice todos los recursos dinerarios disponibles para el pago de las obligaciones.

Tercera.

El Plan de Disposición de Fondos tiene su base en el Plan de Tesorería.

Cuarta.

El Plan de Disposición de Fondos podrá ser revisado en función de las modificaciones producidas en las disponibilidades líquidas efectivas o previstas en la Tesorería.

Quinta.

La cuantía de los pagos ordenados se ajustará a lo dispuesto en este Plan de Disposición de Fondos.

Sexta.

Este Plan de Disposición de Fondos se aplicará en el Ayuntamiento de Beasain.

Séptima.

Corresponderá a la Tesorera de la Corporación determinar la cuenta corriente con cargo a la cual se efectuarán las órdenes de pago, teniendo en cuenta los criterios de máxima rentabilidad de la tesorería y eficacia en la gestión.

2. *Orden de prelación.*

Cuando las disponibilidades de tesorería, ciertas o estimadas, no permitan atender la totalidad de las obligaciones vencidas y exigibles en la ejecución material de los pagos, se establecen las siguientes prioridades:

A) Disposiciones ordinarias:

1. Deuda Pública. Las disposiciones de fondos correspondientes a la carga financiera de la entidad que constan en los capítulos 3 y 9 del presupuesto de gastos se ajustarán a los vencimientos establecidos en los cuadros de amortización de los créditos y préstamos correspondientes que existen concertadas con distintas entidades financieras con el Ayuntamiento.

2. Retribuciones líquidas al personal. Se dispondrán los créditos establecidos en el Capítulo 1 del Estados de Gastos, referentes a las retribuciones de personal previsto en el artículo 8 de la ley 7/2007 de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público que comprenden:

«1.— Son empleados públicos quienes desempeñan funciones retribuidas en la Administraciones Públicas al servicio de los intereses generales.

2.— Los empleados públicos se clasifican en:

a) Funcionarios de carrera.

b) Funcionarios interinos.

c) Personal laboral, ya sea fijo, por tiempo indefinido o temporal.

d) Personal eventual.»

Y por este orden de prelación:

a) Mensualmente por el importe líquido de las retribuciones básicas y/o complementarias reflejadas en su correspondiente nómina para cada puesto de trabajo de la corporación, y las pagas extraordinarias cuando procedan.

b) Mensualmente de los pagos a efectuar a la Seguridad Social, así como los correspondientes a las Retenciones Tributarias, de conformidad con los calendarios oficiales aprobados por los organismos públicos competentes.

EK\CV GAO-I-2020-05507

c) Hilero, aurreikuspen-erakundeei egiteko ordainketena.

3. Amaitutako ekitaldietako betebeharrak. Aurreko ekitaldietakoak diren betebeharrak, horien artean ebazpen judizial bidez ezarritako betebeharrak.

4. Zerga arloko autolikidazioak, BEZ, PFEZ, Errentamenduak, epeen barnean eta Foru Arauan eskatzen diren baldintzetan.

5. Uneko ekitaldikoak diren betebeharrak, lehentasuna izanik fidantza itzultzeko eragiketak, behin-behineko bermeekin lotuak, okerreko diru-sarrerekin lotuak eta Tokiko Ogasunak arautzeko Legeko Testu Bategineko 177.3. artikuluan aurreikusitako epaiak egikaritzekoak eta Tokiko Araubidearen Oinarrien Legeko 26. artikuluan aurreikusitako oinarrizko zerbitzuekin lotuak.

Finantzaketa lotua duten gastuen kasuan, diru-zaintzari dagokionez, horiek banku-kontu independente bidez bereizi behar dira soilik osokoaren erabakia denean edo hura jasotzeko banku-kontu espezifiko bat irekitzea beharrezkoa denean (hitzarmen, banku-kontratu edota akordio batetik eratortzen delako). Bestela, kaxa bakarraren printzipioan sartzen dira.

6. Ordainketa agintzen duenak lehen premia modura jotako ordainketak.

7. Aurreko mailetan jasotzen ez diren aurrekontukoak ez diren ordainketak.

8. Gainerako ordainketak antzinatasun-hurrenkeraz.

B) Xedapen gehigarriak:

1. Berankortasunari buruzko araudian hornitzaileei ordainketa egiteko ezartzen gehienezko epea beteko da.

2. Gastuaren justifikazioaren baitako kobrantza duten diru-laguntza finalisten kasuan, ordainketen lehentasun-hurrenkera aldatu egin ahalko da, gastu horiek justifikatzeko helburuarekin soilik.

3. Ordainketa agintzen duenak aukera izango du oinarrizko zerbitzu publikoen funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuei dagozkien lehentasunezkoak ez diren betebeharren ordainketak agintzeko, eta baita babes eta sustapen sozialeko esku-hartzeen ondoriozkoak ere, dagozkion ordainketa-aginduetan hori adierazita.

4. Diru-zaintzako Funtsak Erabiltzeko Plan honek urtebeteko indarraldia izango du onartzen den egunetik zenbatzen hasita eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 45. artikuluko ondorioetarako argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, indarraldi hori eskumeneko organoak hura berariaz aldatu, indargabetu edo ordeztea erabakitzen duen arte luzatuko da.

*Bigarrena:* Diruzaintza eta Kontu-hartzailetza sailei jakinaraztea eta «Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean» argitaratzea.

*Hirugarrena:* Administrazio bidean behin betikoa den ebazpen honen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi-gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunean hasita zenbatutako hilabeteko epean.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintzak egin edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Beasain, 2020ko urriaren 21a.—Aitor Aldasoro Iturbe, alkatea.
(5507)

c) Mensualmente los pagos a las entidades de previsión.

3. Obligaciones ejercicios cerrados. Las obligaciones contraídas en ejercicios anteriores entre las que se incluirán las obligaciones impuestas por resoluciones judiciales.

4. Autoliquidaciones tributarias, IVA, IRPF, Arrendamientos, dentro de los plazos y en las condiciones exigidas en la Normativa Foral.

5. Obligaciones contraídas en el ejercicio corriente, con preferencia las operaciones de Devolución de fianza, garantías provisionales, ingresos indebidos y ejecución de sentencias previsto en el artículo 177.3 del Texto refundido de la Ley reguladora de Haciendas Locales y los servicios básicos previstos en el artículo 26 de la Ley de Bases de Régimen Local.

En cuanto a los gastos con financiación afectada, a efectos de tesorería, su diferenciación mediante cuenta bancaria independiente debe proceder sólo, por decisión plenaria o cuando para su recepción sea necesarios (porque se derive un convenio, contrato bancario, acuerdo, etc,) la apertura de cuenta bancaria específica. En caso contrario, forman parte el principio de unidad de caja.

6. Pagos estimados por el ordenador de pagos como de primera necesidad.

7. Pagos no presupuestarios no recogidos en los niveles anteriores.

8. El resto de pagos por orden de antigüedad.

B) Disposiciones adicionales:

1. Se atenderá el cumplimiento del plazo máximo de pago a proveedores que fija la normativa sobre morosidad.

2. En el caso de subvenciones finalistas en las que el cobro de las mismas esté supeditado a la justificación del gasto, podrá alterarse el orden de prelación de los pagos con la finalidad exclusiva de justificar aquellos gastos.

3. El ordenador de pagos podrá ordenar el pago de obligaciones no preferentes correspondientes a los gastos necesarios para el funcionamiento de los servicios públicos básicos y por actuaciones de protección y promoción social dejando constancia de ello en la correspondiente orden de pago.

4. El Presente Plan de Disposición de Fondos de Tesorería tendrá un periodo de vigencia anual a partir de la fecha de su aprobación y entrará en vigor el día siguiente de su publicación a los efectos del artículo 45 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, extendiéndose su vigencia hasta que se produzca su modificación expresa, derogación o sustitución por órgano competente.

*Segundo:* Notificar la presente Resolución a los departamentos de Tesorería, Intervención, y ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa:

*Tercero:* Contra la presente resolución, que es definitiva en vía administrativa, cabe interponer recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Gipuzkoa en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al del recibo de la presente notificación. Con carácter potestativo y previamente a la vía contencioso administrativa, podrá interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los arts. 123 y 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

Beasain, a 21 de octubre de 2020.—El alcalde, Aitor Aldasoro Iturbe.
(5507)

EK\CV GAO-I-2020-05507